



Osiñagako jaiak gaur hasiko dira eta ekitaldiz gainezka datoz

JAIK ospatuko dira gaur eta bihar Osiñagan. Gaur, goizetik hasi eta gauera arte, ez da aspertzeko motiborik izango Arriatsu aldean, ekitaldiz betetako programa aurkeztu baitute. Abere dema, pelota partiduak, dantzaldia, bertsolariak eta abar izango dira.

TXUPINAZOAREKIN hasiko dira ofizialki Osiñagako jaiak gaur eguerdiko 12:00etan eta gauera arte hainbat ekitaldi prestatu dituzte Arriatsun eta inguruetan. Jaiak 16garren edizioa dute aurten eta ez dituzte ohiko osagaiak faltako: Bertsolariak (Hernaniko eskolakoak), pelota partiduak Arriatsuko frontoian, dantzaldia Laiotzekin... Aipatutako guztia arratsaldean eta gauean izango da eta horrez gain, sagardo eta bakailao dastaketa, abere dema eta bikote bikainaren lehiaketa (estreinakoz). Goizean, berriz, haurren txanda izango da, bizikleta martxa eta jolasekin. Ea eguraldiak laguntzen duen. / 3



Gaur irekiko da ur parkea, kafetegi zerbitzu, putzu eta etzanda egoteko zelaiarekin

GAURKO eguzkirik espero ez bada ere, ur parkeko atak zabalduko dira. Joan den udan bezala, bertako 3 putzuetan ibili ahal izango da eta baita tobogan, txirristra eta yakuzian ere. Aurtengo nobedadeak dira joan den urtean baino belar gehiago dagoela etzanda egoteko, eta kafetegi ere ireki dutela. Sokorristak ere bertan dira dagoeneko: bost sokorrista izango dira egunero, uretan lasai ibili ahal izateko. / 2

❖ BERRIAK ELKARTEA Gaur izango da Haragiaren Eguna, arratsaldean Plazan

Haragiaren Eguna izango da gaur, arratsaldeko 18:00etan Plazan, eta bertan 100 kilo txerri saiheski eta 25 kilo saltxitxa erreko dira, inguratzen direnek jan ditzaten. Inguratzen direnek 1,5 eurotan hartu ahal izango dituzte pintxoak eta euro batean edaria. Berriak elkarteak herritarrei dei egin die festara animatzeko. ||

❖ SANTA BARBARA Txakolin Eguna gaur elkartean

Santa Barbara elkarteko terrazan, Txakolin Eguna izango da gaur, eguerdiko 12:30etan, animatzen den guztiarentzat. Lau etxetako txakolinak izango dira aukeran: hiru Getariko eta Bizkaiko bat ere bai aurten lehenengo aldiz. Edariaz gain, pintxoak ere izango dira. ||

GAUR KRONIKAN

Ur parkea irekita / 2

Altzuetako Gipuzkoako sagardo lehiaketako finalean / 2

Osiñagako Festak / 3

Buruntzaldeko Erreportajea:
Lanbide Heziketan ikasketak euskaraz / 4-5

KIROLAK: Futbola, plater tiroa, erremontea, errugbia... / 6-7

Astigarragako Turismo gida / 8

Yaben English School

Hurriaga z/g. 20120 Hernani

Tel.: 943 33 17 63



UZTAILEKO IKASTARO INTENTSIBOAK

Frezepezio Orduetgia : arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara

Matrikula: ekainaren 1etik 15era.

University of Cambridge Local Examination Syndicate. Zentro baimendua ES 409

ATXIKI Taberna

Hernaniko Kiroldegia

San Joanetan



Eguneko menuak
Plater konbinatuak
Bokatak
Cus-cus

Ekainaren 22tik
Ekainaren 27ra

Bazkariak eta Afariak

Enkargatzeko deitu:

☎ 943 331 660

Gaur irekiko da ur parkea, kafetegi, zelai eta jolaserako putzuekin

Ekainaren 22ra arte astean zehar arratsalde, eta asteburuetan goiz eta arratsalde irekiko dute.

GAUR irekiko da ur parkea. Joan den asteburuan ere ireki zuten, baina ez zen mugimendu haundirik izan, eguraldi kaxkarragatik. Asteburuan goiz eta arratsaldeko ordutegian irekiko dute, hau da, 10:00etatik 20:00etara. Asteazkenean zehar, ekainaren 22ra arte, arratsalde irekiko dute, 15:00etatik 20:00etara. Ekainaren 22tik aurrera, egunero goiz eta arratsalde irekiko dute ur parkea.

3 putzu, kafetegi, dutexak, takilak eta mahaiak

Ur parkean, joan den urtean bezala, hiru putzu erabili ahal izango dira. Putzu bat haur txikiak erabiltzeko modukoa

da. Beste putzu batean txirritra eta toboganak daude; eta hirugarren putzuan, haundienan, ur jauziak eta yakuzia daude. Horrez gain, etzanda egoteko belazea ere badago.

Aurtengo nobedadea da kafetegi zerbitzua martxan dagoela. Bertako langileek azal dutakoaren arabera, kafeak, infusioak, alkoholdu edariak, freskagarriak, zumoak, eta abar izango dira edateko. Jatekoak ere izango dira: pizzak, pintxoak, bokatak, txutxeak, helatuak, eta abar.

Norberak janaria ere eraman dezake ur parkera eta bazkaltzeko mahaiak erabili. Takilak eta dutexak ere erabili daitezke. ■



Ur parkeko putzuetako bat, ur jauzi eta yakuziarekin.

► Prezioak eta ordutegia

ABONUAK

Kiroldegiko abonatuentzat

18 urtetik beherakoa	26 euro
18 urtetik gorakoa	40 euro
Familiarra	60 euro

Kiroldegiko abonatuak ez direnentzat

18 urtetik beherakoa	49 euro
18 urtetik gorakoa	79 euro
Familiarra	120 euro

EGUNEKO SARRERA

Kiroldegiko abonatu izan edo ez izan

3 urtetik beherakoa.....	2,10 euro
18 urtetik beherakoa	4,20 euro
18 urtetik gorakoa	6,20 euro

ORDUTEGIA

Ekainak 22 arte:

Astez 15:00-20:00/asteburuetan 10:00-20:00

Ekainak 22-irailak 17

Egunero 10:00-20:00

❖ JUBILATUAK

Inersoko bidaietarako izena emateko orriak Ongintzan eta Goiz Eguzkin daude

Inersoko bidaietan parte hartu nahi duen jendeak izen emateko inpresok Ongintza Patronatuan eta Goiz Eguzki Jubilatu etxean ditu eskuragarri, Patronatutik jakitera eman dutenez. 2007-2008 denboraldian inersoko bidaietan parte hartzeko bete beharreko orriak dira. ■

❖ TXINPARTA

Goizuetara 32garren irteera

Txinparta taldeak Goizuetara 32garren ibilaldia egingo du gaur, Antxista menditik (834 m.) pasata. Plaza Berritik aterako dira goizeko 07:00etan eta Goizuetan hamaiketako, bazkaria (Txato eta konpainiak prestatua) eta sagardo txapelketa egingo dute. ■

❖ CHILLIDA LEKU

Pintura lehiaketa gaur izango da

Chillida Leku museoan, aurreko larunbatean zen egiteko pintura lehiaketa, baina eguraldi txarra medio, gaurko egunera atzeratu dute. Gaur, goizeko 10:00etatik 18:00etara izango da. ■

❖ ASTIGARRAGA

Aire libreko pintura lehiaketa

Aire libreko XIIIgarren pintura lehiaketa izango da gaur Astigarragako Joseba Barandiaran plazan. Gaia eta teknika libreak izango dira, eta folio edo lienzoan egin

litezke lanak. Izen ematea goizeko 09:00etatik 12:00etara egin behar da eta parte hartzaile bakoitzak lana egingo duen materiala aurkeztu behar du, antolakuntzak zigilua jartzeko. Lanak 16:00etan jasoko dituzte eta 18:00etan banatuko dira sariak. Lau kategoriaz izango dira, gaztetxoenetatik helduetara. ■

❖ KONTRAKANTXA GAZTETXEA

Gau elektronikoa gaur

Gau elektronikoa izango dute gaur Kontrakantxan eta orain arte entzun gabeko erritmoak jarriko dute saltoka gaztetxea. Gaueko 22:00etatik aurrera, Hernaniko *Alivio* eta *DXPE-BIFULL*, Donostiko *Fi*, Legazpiko *Lalas* eta Zizurkilgo *Eneko Independent* ariko dira musika jartzen. ■

❖ BELKARA AUZO ELKARTEA

Pintura, zeramika eta esku lan erakusketa, datorren astean

Belkara auzo elkarteak bizilagunei abisua pasa die, 2006-2007 ikasturtean zehar Auzo elkartearen egindako pintura, zeramika eta gainerako eskulan ikastaroetako lanak erakusketa jarriko dituztela. Erakusketa ekainaren 4, 5 eta 6an egongo da zabalik, auzo elkarte egoitzan, arratsaldetan, 20:00ak arte. ■

❖ KIROLDEGIA

Ur jolasak bihar igerilekuan

Igerilekuan ur ludoteka izango da bihar, goizeko 10:30etatik 12:30etara, uretan jolas egin nahi dutenentzat. ■



Altzueta Gipuzkoako sagardo txapelketako finalean

GIPUZKOAKO Foru Aldundiak sagardo txapelketa antolatzen du, parte hartu nahi duten herrialdeko sagardotegien artean, eta finalerako sailkatu da Hernaniko Altzueta sagardotegia, Adunako Zabala, Astigarragako Mendizabal eta Irigoien, Irungo Ola eta Ikaztegiak Begiristainekin batera. Txapelketa berezia izaten da Diputazioak antolatua: parte hartu nahi duen sagardotegiak etxeko hiru kupel aukeratu behar ditu eta zozketaz bat aukeratu eta antolatzaileek berek betetzen dituzte botilak. Guztira Gipuzkoako 30 sagardotegik eman dute izena aurtengo txapelketan (analitikak 7 kanpoan utzi ditu) eta horietatik sei onenak bereizi dituzte. Finala ekainaren 9an izango da Donostiako Union Artesana elkartearen. Lehen ere, sariketa honetan goian ibilia da Altzueta, 2004an 2garren postu lortu baitzuen. ■

Txupinazoak hasiera emango die gaur Osiñagako jaiei, ekitaldiz betetako egitarauarekin

Gaur arratsaldeko abere deman Imanol 'Paolla' eta Zumaiko Eltzetxo izango dira. Gauean, bikote bikainaren lehiaketa izango da, Laiotz taldearen dantzaldian.

OSIÑAGAKO jaiek gaur izango dute egun haundia eta hainbat ekitaldi izango dira Arriatsuko eskolan eta inguruan, haur zein helduentzat. Joan den asteburuan hasi ziren jaiek, mus txapelketarekin, baina gaur botako dute txupinazoa eta ekitaldi ia guztiak gaur eta bihar izango dira.


Aurten, jaiek 16garren edizioa dute eta ohiko ekitaldiak (abere dema, bertsolariak, herri bazkaria, pelota partiduak...) nahiz berrikuntzak izango dira Osiñagan (bikote bikainaren saria, esaterako). Aurten ere, antolatzaileak saiatu dira auzotarrak parte hartu ahal izateko ekitaldiak antolatzen, hori baita jaietako helburu nagusia: "jaiek auzotarrak elkartzeko balio dute eta gure artean dibertitzeko eta ondo pasatzeko. Jai hauek Osiñagari komunitate zentzua, izaera propioa ematen diote eta Hernaniko beste auzoetatik bisita egiten digutenek ere hori ikusten dute". Antolatzailetako batek dioen bezala, auzotarrak nahiko sakabanatuta daude eta jaietan harremana sendotzen dute: "auzoan ez dugu biltzeko taberna edo antzekorik, eta

jaietan elkartzea zerbait berezia da guretzat. Jaietan auzo guztia inplikatzeko da, bakoitzak bere modura".

Txupinazoa, abere dema, bertsoak eta abar egunez

Eguerdiko 12:00etan, txupinazoa botako dute Osiñagako auzotarrek, baina hasiera ofizial horren aurretik ere izango da giroa auzoan. Goizeko 10:00etan, haurrek *mountain bike*an ibiltzeko aukera izango dute, auzoan eta inguruan, eta ziur auzoko haurrek bizikletak puntuan izango dituztela bertan parte hartzeko. Antolatzaileek diotenez, haurren parte hartzea "izugarria" izaten da eta Hernanitik haur asko hurbiltzen dira Arriatsura. Bizikleta saioaren ondoren, hamaiketako izango da parte hartzaileentzat eta 12:00etan, txupinazoarekin batera, haur jolasak.

14:00ak aldera, auzotarrak bazkaltzeko elkartuko dira, eta ondoren, abere demarako lekua hartzeko ordua izango dute, 17:00etan. Imanol Paollaren eta Zumaiko Eltzetxoren zaldiak *Santiyomendiko* harriarekin plazak egiten hasteko prest izango dira. Arriatsu



Imanol Paolla, iazko abere deman.

pareko bidean ibiliko dira zaldiak bueltaka, 800 kilo dituen harriarekin. Ikusleek apustuak egiteko aukera ere izango dute, baina exhibizio kutsua izango du probak gehiago. Hirugarren urtea da abere dema egiten dutela Osiñagan. Lehen sega apustua egin ohi zuten eta haren ordezkia da zaldi dema.

Dema bukatu bezain laster, pelota partiduak hasiko dira Arriatsun. Auzotarrak izango dira protagonista eta beren trebezia erakutsi beharko dute koskaz eta berezitasunez betetako frontoian. Gaur final-aurrekoak jokatu dituzte eta bi bikote onenak bihar arratsaldeko finalean izango dira.

Bikote bikainaren lehiaketarekin jendea dantzara animatu nahi dute. Sariak ere izango dira.

Ondoren, Hernaniko eskolako bertsolariak hartuko dute txanda eta Arriatsuko eremua girotuko dute, eta ziur aski sagardo eta bakailao dastaketarekin bat egingo dute, hau 19:30etarako iragarrita baitago. Dastaketarako, auzoko sa-

gardotegiak jarriko dute edaria eta bakailua auzokoek prestatuko dute. Antolatzailetako batek esan digunez, dastaketak ere jende asko bildu ohi du.

Gauean dantzaldia eta aurtengo berrikuntza, Bikote bikainaren lehiaketa

Gauean, 23:00ak aldera, hasiko da dantzaldia Laiotz taldearekin, Arriatsun. Aurten, jendea parte hartzera bultzatze aldera, *Bikote bikainaren lehiaketa* antolatu dute: "lehiaketa honekin jendea dantzara animatu nahi dugu, eta ez begira egotera; nabarmendu nahi dugu lehiaketan parte hartzeko ez dela bikote ofiziala izan behar, edozeinek hartu dezakeela parte". Sariak ere jarri dituzte irabazleentzat, 150, 100 eta eurokoak, "parranda debalde egiteko modukoak" eta horrela, dantzaldira jende gehiago animatuko den esperantza dute. Epaimahaiak erabakiko du zein diren dantzan finenak eta antolatzaileek esan dutenez, sekretua izango da, "epaileak musikariak, dantzariak... izan daitezke".

Laiotz taldearen atsedendian bergaretxetarreneko Iker izango da dantzarako musika aproposa jartzen. II

► Gaurko egitaraua

- 10:00etan:

Mountain bike ibilaldia haurrentzat, auzoan barrena, eta hamaiketako Arriatsun.

- 12:00etan:

Txupinazoa eta **haur jolasak**.

- 14:00etan:

Bazkaria auzokoentzat.

- 17:00etan:

Abere dema:

-Imanol 'Paolla' eta Zumaiko Eltzetxoren zaldiak 800 kiloko harriarekin.

- **Zaldi dema bukatzean:**

Auzokoen arteko **pelota partiduak**. Final aurrekoak.

- **Partiduak bukatzean:**

Bertso saioa. Hernaniko bertso eskolako bertsolariak.

- 19:30etan:

Sagardo eta bakailao dastaketa.

- 23:00etan:

Dantzaldia **Laiotz** taldearekin.

- **Gau osoan zehar:**

Bikote bikainaren lehiaketa.

- **Atsedendian:**

Musika saioa **Iker DJ**-ren eskutik.



Bizikleta hartuko dute gaur ume askok.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK · BEILATOKIA · SULABEA



☎ 943 332234
Faxa: 943 557901
24 h. : 902 402 900
www.funerariavascongada.com
e-mail: furehernani@terra.es

Bulegoak: Andoain, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte, Pasaia, Tolosa



ORKOLAGA, 4 · HERNANI

EUSKARAZ IKASTERA BULTZATZEKO BURUNTZALDEAK KANPAINA BERRI BAT ABIARAZI DU

Lanbide Heziketan, ikasketak euskaraz

Batxilergokoa igarota, orain, Lanbide Heziketan izena emateko epea zabalduko da ekainaren 1ean. Garai honek, Buruntzaldeko euskara batzordeek eta ikastetxeek

bultzatutako kanpainarekin bat egiten du: ikasketak euskaraz egiteko deialdiarekin. Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendariak ere horren aldeko apustua egiten du.

MATRIKULAZIO epea zabalduko dago. Lehen aldiz datorenak zer izan behar du argi?

Patxi Vaquerizo Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendaria: Lanbide Heziketak 23 lanbide familia eskaintzen ditu. Pentsa dezala pixka bat, zer sektoretara jo nahi lukeen. Lanbide Heziketako eskoletako batera hurbil dadila, ikus ditzala instalazioak eta zentru horretako eskaintza zein den. Ez badu konbentzitzen beste batera jo dezala. Ikasten jarraitzeko ideiarekin etorri behar dute. Nahiz eta ikasketen edukien zatirik handiena praktikoa izan. Beraz, zonaldeko eskaintza ezagutu dezala eta hortik aurrera, erabaki bat har dezala.

Zein da egin beharreko tramitazioa?


P.V.: Aurten, lehen aldiz, matrikulazio bateratua egingo da. Hartara, ikasleak ziklo eta zentro ezberdinetan aurre matrikulatu daitezke, baina aurre matrikulazio fitxa eskola bakar eta berean beteta. Gero, uztailearen hasieran zentro eta ziklo bat aukeratu beharko dute. Aurre matrikulazioa ez egiteak aukeraketa hori egitea zailtzen du.

Zeintzuk dira Lanbide Heziketako oinarri nagusiak?

P.V.: Ikasleei lan munduan sartzea errazten saiatzen gara. Une honetan, funtzio nagusia enpresen funtzionamendutik ahalik eta gertuen dagoen hezkuntza eskaintzea da. Bestalde, gizartea hezteko aukera erraztea bilatzen dugu; birziklatze profesionalaren beharrenei edota langabetuei. Berrikuntzaren alorra ere garrantzitsua da, hezkuntza eskaintza enpresen beharretara gerturatzeke.

Urte askotan, Lanbide Heziketa ikasketak eskaintzan bigarren mailan egon izan da. Nola aldatu da egoera hori?

P.V.: Eskola guztiak azken urteetan ahalegin handia egin dugu, ikasketak hauei duintasuna emateko. Enpresetara gerturatu



Ekainaren 1ean zabalduko da aurrematrikulazio epea.

«Une honetan, funtzio nagusia enpresen funtzionamendutik ahalik eta gertuen dagoen hezkuntza eskaintzea da»

eta haien beharren pareko hezkuntza jaso dezaten. Enpresak soberan zuten materiala hartetik, bertan berrikuntza gisa sartzen zutena hartzea eta enpresak eskolaren ekipamenduan parte hartzea igaro gara. Azken urteetan, eskolen gestioa eta ekipamendua hobetzeke ere lan handia egin da. Egun, inkestaren arabera, ikaslearen betetasun-tasa oso altua da, egiten diren inkestaren arabera. Horrek esan nahi du ikuskera aldatu dela. Prestigioan irabazi dugu.

Emakumeen presentzia zertan da?

P.V.: Azken urteetan, alor ho-

retan lan handia egin dugu. Azken urteetan, sektore industrialean lanean aritu diren emakumeen esperientziak oso baikorrak izan dira, nahiz esperientzia gutxi izan. Administrazio zikloetan aldiz, egoera alderantzizkoa da. Guk joera horiekin hautsi nahi dugu. Zentro berean formazio ezberdin horiek eskaintzea interesgarria iruditzen zaigu. Alor industrialeko ikasketak egin dituzten neskek oso postu onetan lanean amaitu dute. Ohiturak aldatzea zaila, baina geroz eta posibleagoa da.

Hurrengo ikasturterako erronkak?

P.V.: Helburu nagusia, dugun eskaintza gauzatzea. Epe luzeagora begira, hezkuntza eskaintza berriak prestatzen ari gara, energia berriztagarrien alorrean. Gure zentroak energia berriztagarrien aldeko apustua egingo du. Ikasle batzuek haien enpresak ere sortu dituzte alor honetan. Alor garrantzitsua eta etorki-

zunekoa dela iruditzen zaigu. Departamendu bakoitzak bere helburuak eta lanak ditu. Kudeaketa eta zentroko pertsonen arteko harreman onak izaten jarraitzea nahi genuke.

Apustuen artean, Buruntzaldeko kanpaina. Nola gauzatzen da eguneroko lanean eskaintza hori?

P.V.: Azken urteetan, Atik D eredurako eraldaketa izan da. Gure eskaintza horretara bideratu nahi izan dugu. Baina Lanbide Heziketa oso anitza da, horregatik ziklo bakoitzeko ikasle kopurua txikiagoa da. Editorialek zailtasun handiak dituzte euskarazko materiala prestatzeko, ikasle talde txikietara zuzentzen baitira. Zentzu horretan, zentroek, irakasleek eta udalak diruz lagunduta materiala euskaratu eta irakasle alfabetatzean ahalegin handia egin dute. Irakasle askok eskuratu dute profila. Eboluzioa pixkanakakoa izan da.

Euskaraz ikasi, euskaraz lan egiteko. Kate hori enpresatan eteten da?


P.V.: Enpresen kokagunearen edo tamainaren arabera izaten da. Enpresa txiki askotan, errazagoa da langileen arteko harremanak euskaraz izatea. Enpresa handietan, errazagoa da erdara komunikazio hizkuntza gisa erabiltzea. Gure eskualdea ere oso ezberdina da eta ikaslearen jatorria anitza. Gu behintzat elebitasun eraginkorra izaten ahalegintzen gara. ■



GOGOAN HARTU HONAKO DATAK:

Aurrematrikulazioa: ekainak 1-7


Matrikulazioa: ekainak 29-uztailak 7



Euskarako planak enpresetan 2004. urtean

Gipuzkoa

Neiker	Urbil-Eroski
Azti Fundazioa	Aspace
Panel Fijaciones	Pasaiako Portua
Danona	IZFE
Orkli	CTSS
Orona	Aquadonosti
Berriola	Nemesio Zubia S.A.
Fagor Koop.	V. Urrutikoetxea Cons.
Ulma Forja	Ideko
Ulma Hormigón	Fagor Automation
Ulma Manutención	Fagor Sistemas
Ulma Taldea Koop.	Ikerlan
Alejandro Altuna	Matz-Erreka
Indar	Goizper
CAF	Soraluze
Cegasa Energ. Port.	Tajo
Elay	Danobat
Elay Industrial	Fagor Industrial
Gorosabel Electr.	Fagor Arrasate
Trokelay	Fagor Elektronika
Urkunde S.A.	Alecop
Bellota	Copreci
Euskadiko Kutxa	Auzo-Lagun
Kutxa	Fagor-Ederlan
Tekniker Fundazioa	Fagor Etzetresna Elek.
Inasmet Fundazioa	Otegi Eraikuntzak
Matia Fundazioa	SAM
Iturgi	Niessen
MSI	San José Garraioak
MCC	Geyser-Gastech
LKS	Larrialdia
LKS Ingenieria	



Enpresa kopurua	111
Langile kopurua	42.052
Enpresen tamaina	
1-100 langile	44
101-500 langile	50
500 baino gehiago	17
Enpresa mota:	
SA, SL	42
Kooperatiba	46
Fundazioa, elkarte	23
Sektorea	
Industria	59
Zerbitzuak	46
Mugimendu soziala	6

Bizkaia

Lealde	Bilbogas
Ekin S. Koop.	Guggenheim
Eika	Bilboko portua
Batz	Bizkaiko Ind. Ingen. Elk.
Maier S. Koop.	Erroak Elk.
Cikautxo Koop. E.	Farapi Asoc. Antropol.
Vusa	Colegio de Informáticos
Arlan	APIE-EIEP Asoc.
ITP	Ilustrad.
Zabaltzen	Asoc. Com. Casco Viejo
BBK	Suspergintza Elkartea
Labein Fundazioa	Ingeniari Inform. Elk.
EDE Fundazioa	Rezikleta S. Koop
Zabaltzen Asoc. Ins. Soc.	Gesfor S.L.
Gaiker	Naturcop Redes
Eroski	Azti Fundazioa
Euskaltel	

Euskal Herria

Eusk. Ikas. ASMOZ Fund.	Ekonomilarien Eusk. Elk.
LAB	Mendikoi
Elkargi	Soc. Gas de Euskadi S.A.
ELA	CCOO Euskadi
EIEF Eusk. Irak. Erlj. Fed.	

Araba

JEZ	Arabako Abokatuen Elkar.
Cega	IKT
Cegasa Internac.	Eije
Celaya	Neiker

EMUN Kooperatibak emandako informazioa

Euskaraz ikasteko aukerak Buruntzaldean

2007-2008 ikasturtea

Erdi-mailako heziketa-zikloak	Ikastetxea	Herria
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak	Hernani BHI -	
Mekanizazioa	Santa Barbara auzoa, z/g - 943 551 188	Hernani
Administrazio kudeaketa		
Mekanizazioa		
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak	Usurbil GLHBI -Arbitza bidea, 29 - 943 364 600	Usurbil
Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa		
Hotz, girotze eta beroa sortzeko instalazioen muntadura eta mantenimendua		
Merkataritza (B)	La Salle-Berrozpe Ikastetxea -	
Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa (B)	La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557	Andoain
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak (B)	Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea -	
Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa (B)	Ergoien auzoa, 6 - 943 551 789	Urnieta

"B" Ereduan ikasgaiak zein hizkuntzatan ematen diren ikastetxe bakoitzean galdetzea komeni da

Goi-mailako heziketa-zikloak	Ikastetxea	Herria
Mekanizazio bidezko produkzioa	La Salle-Berrozpe Ikastetxea - 943 590 557	Andoain
Gizarte integrazioa	Leizaran BHI - Plazaola kalea; 23 - 943 300 078	Andoain
Errealizazioa	Zine eta bideo eskola - Ama Kandida - 943 594 190	Andoain
Proiektu mekanikoen garapena	Hernani BHI -	
Instalazio elektroteknikoak	Santa Barbara auzoa, z/g - 943 551 188	Hernani
Administrazioa eta finantzak		
Mekanizazio bidezko produkzioa	Usurbil GLHBI -	
Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak	Arbitza bidea, 29 - 943 364 600	Usurbil
Eraikin -eta prozesu- instalazioen mantenimendua eta muntadura		
Administrazioa eta finantzak (B)	La Salle-Berrozpe Ikastetxea -	
Produktu elektronikoen garapena (B)	La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557	Andoain

"B" Ereduan ikasgaiak zein hizkuntzatan ematen diren ikastetxe bakoitzean galdetzea komeni da

Batxilergoak	Ikastetxea	Herria
Teknologia	Aita Larramendi Ikastola	
Natur eta osasun zientziak	Txistoki pasealekua, z/g - 943 593 525	Andoain
Teknologia	La Salle-Berrozpe Ikastetxea -	
Giza eta gizarte zientziak	La Salle etorbidea, 5 - 943 590 557	Andoain
Teknologia	Hernani BHI -	
Giza eta gizarte zientziak	Santa Barbara auzoa, z/g	
Natur eta osasun zientziak	943 551 188	Hernani
Giza eta gizarte zientziak	Lasarte-Usurbil BHI	
Teknologia	Buenos Aires aldapa, 1 - 943 372 852	Lasarte-Oria
Natur eta osasun zientziak	Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea -	
Giza eta gizarte zientziak	Ergoien auzoa, 6	
Teknologia	943 551 789	Urnieta
Natur eta osasun zientziak (B)	La Salle-Berrozpe Ikastetxea - 943 590 557	Andoain

"B" Ereduan ikasgaiak zein hizkuntzatan ematen diren ikastetxe bakoitzean galdetzea komeni da



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskarako Batzordeak



IKASTETXEAK

La Salle-Berrozpe ikastetxea
Aita Larramendi ikastola
Hernani BHI
Lasarte-Usurbil BHI
Salesiar ikastetxea
Usurbil GLHBI
Leizaran BHI
Zine eta bideo eskola



◆ FUTBOLA - Hirugarren mailarako igoera 'play off'a

Moraza-Hernani, hirugarren mailarako bidean lehen oztopoa

Igoera 'play off'-eko lehen partidua da Artxandakoa, bihar 11:30etan. 09:00etan aterako dira zaleak autobusean Atsegindegitik.

GORENKO mailako taldeak oztopo asko gaudituz beharko ditu hirugarren mailara igotzeko edo, beste modu batera esanda, karanbola asko eman beharko dira Hernani mailaz igotzeko. Baina karanbola horiek txuriberdeei mesede egiteko lehenengo *play off*a irabazi behar dute, eta bide horretan gaur Artxandatik garaipena edo, gutxienez, berdinketa ekarri behar dute, bi aste barru etxean Aurrera de Vitoriari irabazita *play off*a irabazteko. Hurrengo asteburuan, atsedena izango du Hernanik eta Moraza eta Aurrera de Vitoriak elkarren aurka jokatu dute, Gasteizen.

Lehenengo hitzordua, esan bezala, gaur dute hernaniarrek, Moraza artxandarraren aurka, 11:30etan. Ez da partidu erraza izango, talde bizkaitarra esperientziaduna delako eta tradizioz, Bizkaiko zelaietan asko bultza eta presionatzen dutelako zaleek eta baita jokalariek ere. Hala ere, klubean taldea ilusioarekin ikusten dute eta diote, denboraldian egin duten jokoa eginez gero, partidua aurrera aterako dutela.



'Zubipe Atak'-eko zaleak taldearekin izango dira bihar.

Play offa jokatu eta zain egon behar Hernanik bere *play off*a jokatu eta beste

mailako *play off*ak bukatu arte zain egon beharko du, mailaz igotzeko (beti ere irabaziz gero). Gorengotik mailaz igotzeko, hirugarren mailan postu batek geratu behar du libre. Horretarako hirugarren mailako bi talde 2. B mailara igotzea ezinbestekoa da, 2. B-tik Amurrio jaitsi egin baita. Hori gertatuz gero, toki bat libre geratuko litzateke 3. mailan Gorengoko *play off*a irabazten duenarentzat.

2. B mailara igotzeko *play off*ean Zalla, Amorebieta, Portugaleta eta Beasain sartu dira eta zale eta jokalaritxuriberdeek begi bat talde hauei begira izango dute datozen asteetan.

Zaleak taldearekin

Hernaniarrek zaleen animoak izango dituzte gaurkoan, klubak autobusak debalde jarri baititu joan nahi duenarentzat. Izena eman beharra zegoen Rioja tabernan, baina agian bihar Atsegindegin azken orduan animatzen direnek zortea izango dute, lekuren bat libre harapatuta. 09:00etan aterako da autobusa, Atsegindegitik. ||

◆ ATLETISMOA

Isabel Reyes-ek brontzezko domina Gipuzkoako txapelketan

Isabel Reyes CD Hernaniko atleta kubatarrek brontzezko domina lortu zuen joan den asteburuan Anoetako pistan jokaturako Gipuzkoako txapelketan, mailu jaurtiketan. Txapelketa absolutoa zen, hau da, jubenilak, seniorrak eta beteranoak elkarrekin hartu zuten parte. Atleta kubatarra Euskadiko txapelketa geratu zen maiatz hasieran Durangon, eta beteranoen Gipuzkoako txapelketan zilarrezko bi domina ere lortu zituen, mailu eta pisu jaurtiketan. Ekain bukaeran Espainiako txapelketan parte hartzeko prestatzen ari da orain Reyes. ||

◆ MOTOKROSSA

Bergarako proba bertan behera

Iker Lujanbiok joan den asteburuan Bergaran korritu beharreko proba bertan behera geratu zen, euriak eragindako putzuak zirela eta. Antolatzaileek dena prestatuta zegoenean jakinarazi zuten erabakia eta motozaleak jokatzeko gogoz geratu ziren. ||

◆ GIMNASIA ERRITMIKOA

Lara Peman garaile Euskadiko ligan

Joan den asteburuan gimnasia erritmikoko Euskadiko ligako proba jokatu zen Leioan eta bertan Lara Peman hermaniarra atera zen garaile, kadeteetan. Amaia Agirre hirugarren geratu zen. Biek uztaiarekin eta mazekin egin zituzten ariketak. Taldeka, Hernani 8garren geratu zen jubeniletan. ||

◆ PLATER TIROA

'Foso Universal' tiraldian Luis Mari Zerain irabazle

25etik 23 plater bota zituen. Erregularitatean Roberto Garcia Tejedor jarri da buru.

JOAN den larunbatean egin zuten Txantxangorriko ehiztariak *Foso universal* tiraldia, erregularitateko puntuagarria dena, eta Luis Mari Zerain izan zen irabazlea, 23 platerekin. Plater batera

Iñaki Estarloa eta Roberto Garcia geratu ziren, 22rekin, eta bi gutxiagorekin, Iñaki Urdanpilleta eta Cristobal Barragan. 12 parte hartzaile izan ziren guztira, bi txandatan. Ehiztari asko geratu

ziren proba honetan parte hartu gabe, tartean Pablo Tejada erregularitate sailkapenean buru zijoana.

Erregularitatean

Roberto Garcia buru Erregularitate txapelketarako hirugarren proba puntuagarria zen larunbatekoa, eta lider aldaketa izan zen. Orain Roberto Garcia jarri da buru, 48 punturekin. Bigarren, Antonio Redondo dago, 44 punturekin; eta hirugarren, Xabier Mujika 42rekin. Bi proba geratzen dira erregularitatea bukatzeko eta lehia estua dute lehen sailkatuek.

Miguel Ollo memorialean izen ematea irekita

Herriko haurrentzako Txantxangorri elkarteak antolatzen duen *Miguel Ollo* karabina txapelketan izen ematea irekita dago. Parte hartzeko 10 eta 16 urte artean izan behar dira eta izena elkartearen eman behar da. Txapelketa elkartearen lorategian egingo da: lehenengo kanporaketa ekainaren 16an izango da eta finala 23an. Adinaka sailkatuko dituzte parte hartzaileak: 10-13 urtekoak eta 14-16 urtekoak. Irabazleak karabina bat eskuratuko du eta sari gehiago ere izango dira. ||

FUNERARIA
ORBEGOZO
EHORZKETA



24 orduko tfnoa.

943 33 10 20



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latxunbe, 7

HERNANI - ANDOAIN - ASTIGARRAGA - ORIO - LASARTE - ERRENTERIA

◆ ERREMONTEA

Zabala-Barrenetxea hernaniarrak Oraune txapelketan gaur Galarretan

Erremontista afizionatuek Bertiz-Saldias doneztebarren kontra jokatuko dute. 10:00etatik aurrera.

JON Zabala eta Endika Barrenetxea hernaniarrek Galarretan jokatuko dute gaur goizean, Oraune txapelketaren barruan. Bi erremontista afizionatuek Doneztebeko Bertiz eta Saldiasen kontra jokatuko dute eta beste bi partidu ere izango dira: Etxeberria-Ibai (Azpeitia)/Bereau-Urrutia (Doneztebe), eta Oiartzabal-

Bereziartua (Azpeitia)/Karte-Murriondo (Labrit).

Joan den asteazkenean Zabala-Barrenetxeak 23-35 galdu zuten Apezetxea-Lizarraldearen kontra.

Ezkurra eta Zeberio II aurrez aurre arratsaldean

Arratsaldean Galarretan, profesionaletako lau partidu jokatuko dira eta Ezkurra eta Zeberio II aurrez aurre izango dira estelarrean; doneztebarrak Iriarte izango du atzelari eta saldiastarrak Lizaso. Beste hiru partidu ere jokatuko dira: Zulaika-Zubizarreta/Ibarzabal-Etxezabal; Altuna II-Aizpuru/Juaristi-Etxeberria III; eta Bereziartua-Eizmendi/Sarasua-Badiola. 16:00etan hasita. ||

◆ ERRUGBIA

Hernaniarrak Arrasaten eta Ordizian sakabanatuta jokatuko dute gaur

Talde seniorrak Arrasateko zazpikoa jokatu du, baina talde erdia Euskadiko selekzioarekin ariko da Ordizian.

HERNANIKO errugbi jokalariek Arrasate eta Ordizian sakabanatuta izango dira gaur. Gehienak Arrasateko zazpikoa jokatu dute Hernanirekin arratsaldean, baina zortzi (Axier Insausti, Mikel Orbeago, Gorka Sarasola, Javier Seco *Boli*, Xabier Pernas, Arkaitz Otegi, Oier Garmendia eta Manex Casado) Euskadiko selekzioarekin Ordiziaren kontra ariko dira lagun artekoan, Altamirako zelai berriaren inaugurazioan. Aritz Mitxelena, Jon Apaolaza eta Arkaitz

Otaño ere hautatuak izan dira, baina min hartuta daude. 20:30etan hasiko da partidua.

Arrasateko txapelketa
15:00etan hasiko da eta
Ordizia-Euskadi partidua
20:30etan.

Arrasaten errugbia arratsalde osoan zehar
Hernanik Arrasateko zazpiko txapelketa jokatu du,

15:00etatik aurrera. 10etik gora taldek hartuko dute parte eta zazpi jokalariko taldeekin ariko dira, partidu bakoitza zazpi minutuko bi zatitan. kanporaketak zelai erdian jokatu dituzte, baina finala (19:00ak aldera) zelai osoan jokatu ohi dute.

Landaren jubenilak goizean
Landaren jubenilak Atletiko San Sebastianen aurka jokatu du gaur goizean, Gipuzkoako ligako partidua. 10:30etan izango da. ||

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA		ERREMONTEA	
Gorengo maila (play-offa)	Moraza-Hernani	Artxanda	Bihar 11:30
ERRUGBIA			
Senior A	Arrasate zazpiko txapelketa	Arrasate	Bihar 15:00
Jubenila (Gip. Liga)	Hernani-Atletiko SS	Landare	Gaur 11:30
Infantila	Zarautz Hondartza torneoa	Zarautz	Gaur 10:30
Alebina	Zarautz Hondartza torneoa	Zarautz	Gaur 10:30
		Etxeberria-Ibai/Bereau-Urrutia	Galarreta Gaur 10:00
		Zabala-Barrenetxea/Bertiz-Saldias	Galarreta Gaur 10:00
		Oiartzabal-Bereziartua/Karte-Murriondo	Galarreta Gaur 10:00
		Zulaika-Zubizarreta/Ibarzabal-Etxezabal	Galarreta Gaur 16:00
		Ezkurra-Triarte/Zeberio II-Lizaso	Galarreta Gaur 17:00
		Altuna II-Aizpuru/Juaristi-Etxeberria III	Galarreta Gaur 18:00
		Bereziartua-Auzmendi/Sarasua-Badiola	Galarreta Gaur 19:00

◆ TRIATLOIA

Peru Alfaro Ondarroan ariko da gaur

Peru Alfaro *Gerardo Saiz II. memoria* Ondarroako triatloian hartuko du parte gaur, eta Euskal zirkuiturako puntuak lortzen saiatuko da bertan. Triatloio olimpikoa da, hau da, igeri kilometro t'erdia, bizikletan 40 km., eta korrika 10 km. egin beharko dituzte. 16:00etan hasiko da. ||



◆ BOLA

Burugain laugarren Gipuzkoakoan

Migel Burugain Elur Txoriko bolaria laugarren izan zen joan den astean Legazpin jokatu zen Gipuzkoako txapelketan. Bertan 25 bolari bildu ziren, tartean lau hernaniar: Burugain, J. Ugalde (13garren), A. Miner (16garren), eta M. Arrozpide (20garren). Irabazlea Ategorrietako A. Goenaga izan zen. Burugain eta Ugalde, biak Elur Txorikoak, Euskadiko txapelketan izango dira, ekainaren 9an Laudion. Bestalde, bihar Lasarten, beteranoen, emakumeen, gazteen eta haurren txapelketa jokatu da. ||

◆ SASKIBALOA

Haurrentzako azken jardunaldia bihar

Bihar kiroldegian egingo dute azken saskibaloij jardunaldia 1995 eta 1997 urteen artean jaiotako haurrek. Kiroldegian izango da beti bezala, 10:30etatik 12:00ak arte. ||

◆ ZIKLOTURISMOA

Zikuñagako Amako zikloturistak Zarautzik Getariarako bidean.
Arg.: Felix Etxeberria



Zikuñagako Amako kideak Lesakara

Zikuñagako Amako kideak Lesakara joango dira bihar goizean eta 82 kilometro gehituko dizkiote orain arte egindakoari. ||

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -



URNIETA-ko biltegia aurkezten dizu:

Zerbitzu iraunkorra lortu nahian, 4.000 m2 ditugu lehengo markako 100.000 artikulua baino gehiago erreferentziatuak eta 20.000 artikulua baino gehiagoko estock-arekin: gama txuria, marroia eta PAE.



Gainera, 2007ko martxoaren 31a arte: berriuz ezazu zure elektrogailu zaharra eta aurreztu 75 €.

Aurreztu
Energia

EVE Erte Vasco de la Energia

* Eusko Jaurlaritzako eta EVEko RENOVE PLAN-ari atxikitutako denda.

HERNANI HIZKUNTZAK

(Gure Ingelesetxea)

Klaseen azken eguna: OSTIRALA, EKAINAK 22

UZTAILA: IKASTARO ERDI-TRINKOA:

MATRIKULA IREKITA

Izen ematea: **ekainak 26tik ekainak 29ra**
12:30 - 13:30
18:30 - 20:00

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08

Kale Nagusia 41 - 1

TELEFONOAK | Taxiak: 943 550093 | Udaltzaingoa: 943 248900 | DYA: 943 464622 | Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | Anbulatorioa: 943 006666 | Jokalari anonimoak: 943 331103 | Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK | Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 - 943 552941 | Gaez: Etxebeste Elkan 2 - 943 552087

EGURALDIA | **GAUR** | Euri pixka batekin hasiko dugu eguna, baina arratsaldean hobera egingo du. Temperatura 20°C azpitik ibiliko da.
BIHAR | Eguraldiak hobera egingo du. Zeruan lainoak izango ditugu, baina tarteka eguzkiak gozatzeko aukera izango dugu. Temperaturak gora egingo du. (euskalnet)

KRONIKA



Aurkene Altzua azalpenak ematen, Bixente Arrizabalaga alboan duela, ostegunean kultur etxean.

Astigarragako turismo gida, herriaren muina lau ibilbidetan

ASTIGARRAGAKO Udalak eta Deustuko Unibertsitateak turismo gida atera berri dute, Astigarraga bere osotasunean ezagutzera emateko. Izan ere, Astigarraga sagardoagatik da ezaguna, baina ez da horretara

eta Astigarragak ere bere lekua bilatu nahi du turismo eskaintza horretan. Aurkene Altzua Deustuko Unibertsitateko kideak azaldutakoaren arabera, aisialdia da jendeak eskatzen duena "baina ez azaleko aisialdia, jendeak edukiak ere bilatzen ditu". Astigarraga ingurura etorri litekeen jendearen perfila egiten ere saiatu dira: aniztasuna eta desberdintasuna ikusi nahi duen jendea, bertako kulturarekiko jakinmina, interesa eta errespetua duena... hori guztia kontuan hartuta egin dute Astigarragako gida.

Lau ibilbide
 Gidak liburuxka formatua du eta lekuen argazkiak eta informazioz osatua dago. Lau ibilbide proposatzen ditu, Astigarragako aukera guztiak batzen dituzten lau ibilbide: Lehenengoa, *Astigarraga bete betean* izenekoa (hirigunea); bigarrena, *Bizi ezazu kultura Astigarragan* (inguru naturala eta historiaurrea biltzen ditu); hirugarrena, *Astigarraga eta euskal nekazaritza kultura* (euskal eta nekazal kultura, ohiturak...); eta laugarrena, *Astigarragan txotx* (sagardoa eta sagardotegiak). ||

«Gidak kanpoko nahiz bertako jendearentzat balio du»

mugatzen, Bixente Arrizabalaga alkateak ostegunean aurkezpenean azaldu zuenez. Gaur egun turismo garapena da Udal askoren helburuetako bat

❖ ASTIGARRAGA

Kultur Astea, asteartetik aurrera, AEK euskaltegiak antolatuta

Astigarragako AEK-k antolatuta Kultur Astea izango da datorren asteartetik larunbatera. Asteartean, *Jolastuz Ikasi Ikasiz Jolastu* ikastaroa emango du Oier Agirresarobek, 19:30etan, Joseba Barandiaran enparantzan, haurrekin euskeraz egiteko jolasak ikasteko. Asteazkenean, Autoikaskuntza topaketak eta *Apaizac obeto* ikus-entzunezko emanaldia; ostegunean, *Abiadura txikiko piztiak* poesia musikatu emanaldia; ostiralean, musika eskolako ikasleen emanaldia; eta larunbatean, afari *Gallegoa*. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Harley Davidson XLH 1200 Sportster motoa salgai. 6.000 € salgai. Deitu: 680 86 00 38 (19:30etatik aurrera)

Etzeko lanak egin eta otorduak prestatzeko pertsona baten bila gabiltza. Deitu: 645 72 36 75
 Galdutakoak. Spaniel Breton arrazako txakurra galdu da. Kolore txuri-marroiak ditu eta identifikatzeko mikrotxipa eta belarriko tatuajea dauzka. Diruz eskertuko da. Deitu: 649 44 24 70.

Neska euskaldunak Udaran lan egingo luke: kamarera bezala, laguntzaile... Deitu: 666 32 09 19

Neska euskaldunak uztaila eta abuztuan lan egingo luke astelehenean ostiralera: kamarera, haurrak zaintzen... Deitu: 679 06 06 88

Etxebizitza salgai Mañe i Flakerren. 3 logela, komuna eta aseoa, sukaldia, saloia eta trasteroa. Deitu: 691 99 33 71

168 m2ko lokala biltegitako alokatzen da baserri batean, 27 industrialdearen inguruan. (Martutene). Deitu: 943 46 36 31

Irene Estetika. Depilazioa, masajeak, aurpegi tratamenduak, zutikako solariuma, makilajea... Kardaberaz 51, behea. Tel. 943 55 71 13 - 686 50 44 23

Lokala alokatu nahi dugu, jubilaria dela eta. Eguzki perfumeria. Beste aktibitate bat jarri daiteke. Deitu: 943 55 13 33

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropaxia, osteopatia xamura, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P. 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta *Kuperros*. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15.

Kalitatea eta ezagutza zure etorkizunean

Gure eskaintza:
(modulos A-D ereduak)

Batxilergoa Bachillerato

- Tecnologikoa
- Natur eta osasun zientziak

Erdi mailako zikloak Ciclo medio

- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Mekanizazioa
- Bitxigintza
- Neurrira egindako arotzeriaren eta altzarien fabrikazioa eta instalazioa
- Arotzeriaren eta altzarien fabrikazioa industriala

Goi mailako zikloak Ciclos superiores

- Eraikuntzako proiektuen garapen eta aplikazioa
- Erregulazio eta kontrol automatikodun sistemak
- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena
- Mekanizazio bidezko produktzioa
- Proiektu mekanikoaren garapena
- Ingurugiro kimika
- Lanbide arriskuen prebentzioa

easo
Politeknikoa Politécnico

Idazkaritzako ordutegia
Astelehenean ostegunera:
9:00 - 13:00 / 15:30 17:30
Ostiralean: 9:00 - 13:00

Felipe IV Etorbidea, 1 B - 20011 Donostia
Tfn: 943 455422 - FAX: 943 470022
e-maila: secretaria@easo.net - www.easo.net

